

b.1.2. Joxeren bidaiak



Joxe munduan zehar bidaiatzen dabilen artzain bat da eta bidaia horietan hainbat lagun egin ditu. Bidaiatzen duen bakoitzeko ikasleekin lantzen ari garen gaia aldatu egingo da edo aldatzeko gutxi faltako da.

Bidaia berria egiten duenean, Joxek joko bat proposatuko die umeei: zein garraiobide erabiliko ditu dagoen tokitik helmugara iristeko? Umeak, taldeka, bidaia zerez egin duen asmatzen saiatuko dira. Helmugara iristen denean, Joxek, bidaiaren berri emango die.

Jokoarekin hasi aurretik, lehenengo bidaia egitera doan momentua izan daiteke egokiena, garraiobideak landu egingo dituzte. Horretarako "garraiobideen bikote-jolasa" eta "lurretik, zerutik eta uretatik" jolasak daude.